

ERABAKIA, 2016KO OTSAILAREN 22KOA, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTORDEARENA, EKINDUZ LEHIAKETAREN DEIALDIA ONARTZEARI BURUZKOA

RESOLUCIÓN DE 22 DE FEBRERO DE 2016 DEL VICERRECTOR DEL CAMPUS DE ÁLAVA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA POR LA QUE SE APRUEBA LA CONVOCATORIA DEL CONCURSO EKINDUZ

UPV/EHUko Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura ekintzailea bultzatzeko garatzen dituen jardueren artean, INIZIA Araba Campus programa dago. Unibertsitateko kideei zuzenduta dago eta helburua da horien artean ekintzaileak bultzatzea, ekintzaileoi aholkua eta laguntza ematea, baita berritzaileak diren eta oinarri teknologikoa duten enpresak sortzen laguntzea ere.

Entre las actividades que el Vicerrectorado del Campus de Álava de la UPV/EHU viene desarrollando para el fomento de la cultura emprendedora, se encuentra el programa INIZIA Araba Campus. Este programa, dirigido a la comunidad universitaria, tiene por objeto fomentar, asesorar y apoyar a las personas emprendedoras, así como a la creación de empresas innovadoras y de base tecnológica dentro de la comunidad universitaria.

Ildo horretatik, eta aipatutako programaren barruan, Arabako Campuseko errektoreordeak, Garapen Zuzendaritzaren bitartez, interes handikotzat jotzen du ikasleei modu ludikoan eta entretenigarrian ekintzailetzari buruzko ezagutza bideak eskaintzea. Izan ere, batetik, enpresen sorrerarekin lotutako gaietan prestatuko ditu ikasleak eta, bestetik, dibertitzeko ere baliagarri izango zaie.

En ese sentido, y dentro del citado programa, el Vicerrectorado del Campus de Álava, a través de su Dirección de Desarrollo, considera de gran interés ofrecer al alumnado vías por las que adquirir de manera lúdica y entretenida nuevos conocimientos en materia de emprendizaje, que además de permitir su formación en cuestiones como la creación de empresas, les sirvan, a su vez, de diversión.

Horiek horrela, campusean "Ekinduz Lehiaketa"ren lehenengo edizioa antolatu eta garatzeko ideia sortu zen, izen bereko online jokoaren bidez ikasleen parte hartzea bultzatzeko. Duela urte bat baino gehiago sortu zen kultura ekintzailea modu dibertigarrian sustatzeko xede nagusiz.

Fruto de ello nace la idea de organizar y desarrollar en el Campus la primera edición del "Concurso Ekinduz" a fin de impulsar la participación del alumnado en el juego on-line de igual nombre, creado hace más de un año con el objetivo primordial de fomentar la cultura emprendedora de una forma divertida.

Aurreko guztiagatik, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak UPV/EHUko gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko eta eskumenak eskuordetzeko 2013ko urtarrilaren 30ean hartutako erabakiaren bidez, honako hau

Por lo expuesto, y en virtud de lo dispuesto en la Resolución de 30 de enero de 2013 del Rector de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, sobre estructura y determinación de las áreas de funcionamiento de su equipo de gobierno y de delegación de competencias, y por delegación del Rector de la UPV/EHU

ERABAKI DUT:

RESUELVO

LEHENENGOA.- EKINDUZ lehiaketaren deialdia onartzea.

PRIMERO.- Aprobar la convocatoria del CONCURSO EKINDUZ.

BIGARRENA.- Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea (oinarriok agiri honi erantsita daude).

HIRUGARRENA.- Deialdia eta oinarriak Arabako Campuseko iragarki taulan eta UPV/EHUren iragarki taula korporatiboan argitara daitezela eta UPV/EHUren webgunean guztion eskura jar daitezela agintzea.

LAUGARRENA.- Administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka eta berorren oinarrien aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal zaio erabakia hartu zuen organoari, hilabeteko epean, argitalpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean aurkeztu ahal da administrazioarekiko auzi errekurtsua kasuan kasuko administrazio auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazpenaren biharamunetik aurrera kontatzen hasita. (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena 116. artikulua eta hurrengoak; eta uztailaren 13ko 29/1998 Legearen Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena 46. artikulua.

SEGUNDO.- Aprobar las bases reguladoras que regirán la presente convocatoria, y que se adjuntan.

TERCERO.- Ordenar la publicación de la convocatoria y sus bases en el tablón de anuncios del Campus de Álava, así como en el Tablón de anuncios corporativo de la UPV/EHU, y su puesta a disposición en la página web de la UPV/EHU.

CUARTO.- Contra la presente resolución y sus bases, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación ante el mismo órgano que lo dictó, o bien directamente, recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo correspondientes en el plazo de dos meses a contar, igualmente, desde el día siguiente al de la notificación (artículos 116 y siguientes de la Ley 30/1992 de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, Regulador de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Gasteizen, 2016ko otsailaren 22an.

Vitoria-Gasteiz, 22 de febrero de 2016.

Javier Garaizar Candina
Arabako Campuseko errektoreordea
Vicerrector del Campus de Álava

